

# Hondarribiko Txingudi ikastola

## Migel Garai eta Jose Ignacio Linazasoro

### 1974-1978

Migel Garai eta Jose Ignacio Linazasorok 1974an sinatutako Txingudi ikastolaren proiektua euskal arkitekturaren Postmodernitatearen mugarri bilakatu zen. 25 urte baino gehiago igaro direnean, haren analisisa egiten dugu, egileetarik batekin izandako solasaldia baliatuz.

Agurtzane Elguren eta Ibai Gandiaga °

Gako-hitzak:  
sustapen publikoa

Migel Garai, Jose Ignacio Linazasoro,  
monumentaltasuna, tendentzia mugimendua



Ikastolaren egungo egoera

Argazkia: Unai Fernandez de Betono

Migel Garaik Donostiako estudioan egiten digu harrera, eta, jarri orduko, berak zuzentzen digu lehenbiziko galdera: **“Zer dela-eta”** dio arkitektoak **“postmodernoenganako bat-bateko interes hori?”**.

Erantzunak askotarikoak izan daitezke: urteurrenak (zenbat urte pasatu dira Rossik *L'Architettura della Città* argitaratu zuenetik?), errebisionismoa edota modan jarraitzen duen zer-baiten kimuak aztertzea (Bartzelonako Justizia Hiriko proiektuan David Chipperfield-ek argi uzten du zenbait erreferentzia formal ez direla galdu), edo Donostiako Arkitektura Eskolako haztapanak aztertzea. Horiek guztiak esan eta gero, Migel Garai eta Jose Ignacio Linazasorok 1974an proiektatutako eraikinaz hitz egiten hasten gara.

Migel Garaik, bere lanen artean, Hondarribiko ikastola kuttunenetakoa dela esaten digu. Bi arkitektook batera egin zuten lan eraikinik gabeko eskualdeko lautada bakarrenetakoan kokaturik dagoen ikastola honetan.

Hasierako proiekturen eta eraiki zenaren artean bada ezberdintasunik. Josep Muntanola Thornberg arkitektoaren esanetan (1), hasiera batean proiektuaren oinplanoa garatzeko orduan **“idea”** bat zuten arkitektook baina eraikitze orduan eta errealitatearekin topo egitean, proiektua moldatu zen.

**Idealaren eta errearen arteko dialektika hau** Mugimendu Modernoaren aurreko arkitektoek kontuan hartzen ez bazuten ere, arkitekto postmodernoek izan zuten, bai, auziarekiko zelanbaiteko sentsibilitatea. Muntanolak dioenez, hau izan

(1) MUNTAÑOLA, 1981

△  
▽  
△ Análisis: Hondarribiko Txingudi ikastola Migel Garai eta Jose Ignacio Linazasoro, 1974-1978


daiteke postmodernoen garaiko arkitekturaren baliorik garrantzitsuenetakoa.

Linazasoro eta Garairen lankidetzak laburra baina oparoa izan zen, eta, batez ere, arkitektura munduan oihartzun handikoa. Hainbat agerkerik elkarrekin burutako proiektuak hedatu zituzten; Hondarribiko ikastola, Irungo plazarako proiektua, Bergarako hilerria... horrela **“euskal” estilo modernoaren etorrera iragarritz.**

Aspaldiko aldizkariaren orrialdeak pasatu ahala, Garairen begirada txuri-beltzean egindako axonometrietan galtzen da: **“Estiloa, bere momentuan, entzute handikoa izan zen, baina azkenean formalitate batean erori zen; dena zen konposizioa, ordena, simetria. Gaur egun, konposizioa barik, eraikuntza landu behar dela uste dut.”**

Denbora horietan bakarkako lanak ere gauzatu zituzten arkitektook; urte batzuetara, bien bidea behin-betiko banatu zen, Linazasoro Donostiatik Valladolidera eta, handik, Madrilerara joan eta gero. **Ikastolak suposatu zuen mugarria, ordea, estiloaren estandarte bilakatu zen; momentu horretatik aurrera euskal arkitektura postmodernoen lengoaiak gelditu ezinezko formalismora bidaia hasi zuen.**

Zama hori gainean, egileengan ukapen efektua sorrarazi zuen estiloak: **Migel Garaik zeharo gaitzesten du garaia, Linazasororen modura.** **“Estreinako momentuan ikerkuntza dago”** digu Garaik, **“Historia arakatu eta interes gehien duena zureganatzen duzu. Baina denbora baten ostean hori dena**



Ikastolaren behin-betiko bertsioa

baretu egiten da, eta dekorazio hutsak ziren aferetan galdu. Nire lehenbiziko hamar urteak onartu baditzaket ere, ez da hori gertatzen hurrengo hamarrekin. Donostiako Arkitektura Eskolako eraikina aldaketa bat suposatu behar zuen, baina berandu iritsi nintzen”.

### Espazio publiko eta pribatua

Erreakzio bortitz hau, beharbada, ideiak bere garaian izandako potentziaren kontrako erreakzio hutsa da; tendentzia mugimendutik zetorren arkitekturak, edo ideologiak, Euskal Herrian 70eko hamarkadan bizi izandako garai zalapartatsuekin bat egin zuen, ezin hobeki gainera. **Nonbait, gauza logikoa da tendenzak aro klasiko (demokraziaren sorrera) eta neoklasiko (Ilustrazioaren garai formalak) elementuak hartzea, sozialistotik eraiki nahi den gizartea irudikatzen.**


Garairen hitzetan, “oso proiektu idealista da, ia neoklasiko purua ematen du. Orduan hasi ziren ikastolak egiten, eta eraikina gurasoen elkarteak ordaindu zuen. Francoren azkenengo garaiak izanik, eta zenbait gauza jada baimenduta bazeuden ere, ikastolek, oraindik ere, guretzat balio sinboliko izugarria zuten, gure Iraultza Frantsesa, nolabait”.

Ideal horien harira, hiria berriro eraikitzeko nahiarekin, **pribatuaren eta publikoaren arteko erlazioa ezarri zen**, hau da, eraikin publikoaren eta etxebizitzaren arteko erlazioa sorraraziko duen eraikin monumental baten sorrera.

Eraikin simetrikorik horren oinplanoari arreta jartzen badiogu, guztia zeharkatzen duen etorbide bat dugu, non, zubia iraganeraz gero, jolaslekura eramaten gaituen. Erdian, “eraikin publiko” bat dago (liburutegia eta areto nagusia) eta inguruan “etxebizitzak” (ikasgelak). Erdiko gunek hori plaza nagusiaren tankerako zerbait da.

Hortaz, funtsean ikastolaren proiektuaren diseinuaren atzean, eraikin kolektibo bat eraikitzeko nahia zegoen, XIX. mendeko falansterioek izan zezaketen balio sozial batekin hornitua.

Migel Garaik eraikin publiko bat egin nahi zutela aitortzen



Ikastolaren hasierako bertsioa

digu, hirian kokaturik zegoena eta ezaguna izango zena. Ikastolak monumentaltasun bat badu, Artzain Onaren katedralak bezala; paisiarekin erlazionatzen da.

Postmodernitate delako, garaian, Garaik dionez **“materialek ez zuten gaur egun duten garrantzirik**. Ikastolaren materialak oso sinpleak dira, porlanezko egitura, zarpiatu eta pintura akabera batekin. **Idealistagoa zen arkitektura**, eraikuntzak ez zuten baliorik, konposizioak ematen zion balio hori”.

Formen monumentaltasunak materialen apaltasunaren kontra egiten du talka: arotzeriak zurezkoak dira eta estalkiak, aldiz, lauak eta zinkezkoak. Egun pentsaezina litzateke modazko al-dizkarietan agertuko den eraikinak materialak lantzeari muzin egitea, baina garaian eraikinaren ideia, ideala edota ideologia beste edozeren aurretik jartzen zen.

### Bibliografia:

- GARAI, M. (2000): *Arquitectura textil*, Gipuzkoako Campuseko errektoreordetza.
- CAPITEL, A. (1979): “Tendencia y Postmodernidad”, *Comun*, 1.
- MUNTAÑOLA THORNBERG, J. (1981): “Tñaki Linazasoro y Mikel Garai, o el posclasicismo vasco”, *On Diseño*, 32.
- EZEZAGUNA (1976): “Ordine e Forma”, *Casabella*, 420.